

OLASAGARRE, Juanjo. *Ezinezko maletak*

Susa argitaletxea. Donostia, 2004ko martxoa. 249 orrialde

Ainhoa AROZENA

Orain artean, poesia izan da Juanjo Olasagarrek gehien landu duen generoa; antzerkia nahiz kronika ere idatzi izan dituen arren. Arbizuko idazlearen lehen eleberria da *Ezinezko maletak*, eta nobelagintzan batere gaizki moldatzen ez dela argi erakutsi digu.

Iragana, horixe da liburuko orriek eta izenburuak berak biltzen dutena. Lekunberriko lau kideren iragana. Bazter, Fermin, Harakin eta Jexux Mari, koadrilako lau mutil horien gaztaroa azaldu du idazle nafarrak protagonisten helduarotik. Eleberria, Ferminek jasotzen duen telefono dei batekin hasten da. Bazter, Londresen bizi zen garai bateko laguna, hil egin dela jakingo du. Koadrilako beste bi lagunei abisua eman ondoren, lagunaren hileta ospakizunera Londresera joateko txartelak hartuko dituzte. Hiru lagunak elkartzen diren unetik beretik hasiko dira iraganeko oroitzapenek sortutako ezinikusiaren ondorio gordinak agerian geratzen. Liburua osatuko dutenak, egungo oroitzapenak dira, gaztaroko pasadizoak.

80ko hamarkadan kokatuta dago nobela eta garai hartako giroa islatzen da bertan. Gazte garalan, egoera politikoak du pisu nagusia eta ezker abertzalearen baitan hasieran, eta ETA erakundean gero, egindako hainbat ekintzek norbanakoari sortutako zalantzak dira lagun taldea banatu izanaren arrazoi nagusia. Maitasuna eta sexu aukera ere, giro politikoaren pare-parean, gai nagusia da eleberrian zehar. Izan ere, Bazter pertsonaia homosexuala dela konturatuko baita eta, bizi den giroan, bere izaera aurrera atera ezin duenez, Londresera alde egitea erabakiko baitu.

Kontua da, esan bezala, urte batzuk beranduago, euren pentsamolde eta bizimoduek hartutako bide ezberdinak alboan, Bazterren hileta ospakizunerako elkartuko direla berriro. Londresen, lurralde berri batean, Bazterren bikotekideaz gain, beste hainbat lagun ezagutuko dituzte, hiru lekunberritarrentzat oso giro berezian, Ferminek izan ezik, besteek ez baitzekiten Bazter homosexuala zenik. Tartean trabestituta ageri den Bazterren amorantea ere ezagutuko dute. Agurra berezia izango da. Koadrilako kideak ez baitira modu lasaian agertzeko gai izango. Euren arteko harreman pertsonalek egoera baldintzatuko dute uneoro eta ezintasuna ageri da haien jarreretan.

Lagunaren errausak Londresen eta Euskal Herrian zabaltzea pentsatuta zeukan Mark bikotekideak. Hiru euskaldunek errausen potoa hartu arren, inoiz ez da jakiten zer gerta daitekeen... Liburuaren amaiera borobila da, aeroportuko langile baten galdera zelebretatek, tragedia izan daitekeen gertaera komiko bihurtzen du. Ironia zipiztin politak ditu liburuak. "Oso nekatuta nauka Euskal Herriak, beti matraka beraren inguruan gabiltza; jendea preso dago, jendea hil egiten da... Horren aurrean barre pixka bat egitearren, umore beltza tartekatu dut", halaxe adierazi zion Olasagarrek Beterriko Liburuari.

Eta egia da, gai ilunak komikotasunetik lantzea eskertzen duela irakurleak. Izan ere, gertaera gordinak irakurtzeko baditugu egunkariak.

Aipamenari liburuia gomendagarria dela erantsi nahiko nioke. Pertsonaien aldetik berritzailea dela esango nuke, norbanakoaren identitatearen bila abiatu eta bakoitzak bere aukera egiten duen arte garatu ditu Olasagarrek laurak. Lau protagonista eta Londresen ezagututako Bazterren lagunez gain, badira ahots gehiago ere. Liburuari doinu goxoa eransten dietela gaineratuko nuke.